

ESPAINIAKO KOPA. Ademar Leon, Portland, Bartzelona eta Ciudad Real dira irabazteko aukera gehien dituztenak

CIUDAD REAL

Datorren urterako talde beldurgarria osatu du

Diruak agintzen du kirolean, eta Ciudad Realen zorioneko dira. Domingo Diaz de Mera presidenteak datorren urtean talde indartsua osatzeko diru laguntza handiak lortu ditu bi enpresengandik —Ciudad Realgo aireportua, eta On Kixote parkea—, eta Bartzelonaren pareko aurrekontua du jadanik. Lotuta ditu Duixebaev, Urios pibota —jokatzen ari da jada—, Pogorelov, Pajovic eta Sterbic. Vujovic entrenatzailea ekarri zuten talde handi hori zuzentzeko, baina orain zurrumurruek diote Juan de Dios Roman nahi dutela. Fitxaketa garestiak gauzatu ahal izateko tratu bereziak egin dituzte zenbait enpresarekin. Horrela, Vitafresh enpresak Duixebaeven fitxa ordainduko du, eta ordainean harenirudia erabili ahal izango du bere produktua saltzeko.

PORTLAND

Alvaro Jauregik agur esango du denboraldi amaieran

Alvaro Jauregi kapitainak adierazi du Ciudad Realgoa izan daitekeela berak jasoko duen azken kopa. Oraindik behin betiko erabakia hartu ez duen arren «litekeena da», hau izatea bere azken denboraldia. Jauregik 33 urte ditu eta horietarik 15 egin ditu San Antonion. Klubaren unerik latzenak bizi izan ditu, baina azken urte hauetan zerua ukitzeko aukera izan du.

FITXAKETAK

Demetrio Lozanok Alemaniako THW Kiel taldean jokatuko du datozen hiru denboraldietan

Oraindik kontratua sinatu ez duen arren, THW Kiel taldeko presidente Georg Werner presidenteak esan du akordioa erabatekoa dela Bartzelonarekin zein jokalariarekin. Demetrio Lozanok hiru urterako kontratua sinatuko du.

Jovanovicek 15 partiduko zigorra jaso dezake Alemanian, eta Asobalera itzultzea aztertzen ari da

Nedeljko Jovanovici 15 partiduko zigorra ezar diezaioke Alemaniako Federazioak, azken partiduan aurkari bati muturreko bat emateagatik. Hori gertatuko balitz, bere kluba (Hameln) 2002. urtea arte duen kontratua eteteko prest legoke, eta Jovanovicek Asobal Ligara itzultzeko aukera aztertuko luke. Hori bai, Alemaniako Federazioak ez omen dio alde egiteko baimena emango zigorra bete arte.

Indarrak parekatuta, inoiz baino hautagai gehiago

Portland-Granollers eta Bidasoa-Bartzelona final-laurdenak gaur

Gorka Zabaleta | **DONOSTIA**


Titulua irabazteko faboritoak, betikoak dira —Bartzelona, Ademar eta Portland—, baina aurten ezustekorako inoiz baino aukera gehiago daude, indarrez oso parekatuta iritsi baitira talde guztiak denboraldi amaierara. Ciudad Realek etxean jokatzen du eta Kopa irabaztea datorren urterako osatu duten talde beldurgarriarentzat —Duixebaev, Pogorelov, Pajovic,...— atariko paregabea litza-teke. Vujovicek zuzentzen duen taldea oraindik ez da Ligako handien parera iristen, baina txapelketa ona egin nahiko dute jarraitzaileengan —eta babesleengan, batik bat— ilusioa pizteko. Final-laurdenetan, ordea, Kanarietako Galdar izango du aurkari, une honetan sasoi one-nean dagoen taldea, Ademar Leonekin batera.

Leondarrek Liga irabazteko aukera ezin hobea dute aurten, eta oraingoz ongi erantzuten ari dira Bartzelonak bigarren postutik eragindako presioari. Magnus Andersson suediarra fitxatu dute denboraldiko azken txanparako, eta haren esperientziak lasaitasun handia eman die. Final-laurdenetan Valladolid izango dute aurrean, eta arazo handirik gabe gaingitu beharko lukete. Ademar da, akaso, faborito nagusia.

Bidasoak lan zaila du Bartzelonaren aurka


Bi euskal taldeetatik Bidasoak du aurkari gogorrena. Bartzelona ez dago bere unerik gozoe-nean, baina talde handia izaten jarraitzen du. Europako Kopa galdu zuten San Antoniorekin, Ligak ihes egin die ia, eta jokari garrantzitsuak dituzte min hartuta (Barrufet, Masip). Agian horrek arriskutsuago bihurtzen ditu, Kopa irabazi nahiko baitute, nola edo hala, denboraldi garratza apur bat gozatzeko. Bidasoak dena eman beharko du aurrera egiteko baina ez zaio beste aukerarik gelditzen datorren urtean Europan jokatu nahi badu.

Portland San Antoniok eman dezakeenak sortzen ditu zalan-tza gehien. Europako Kopa irabazi zutenetik, nafarren jokoak behera egin du nabarmen, eta defentsan ezinbestekoa den tentsio puntua galdu dute. Baina azken ahalegina egiteko prest agertu dira, eta badakite



MIKEL SAIZ
Portland San Antonioko Oleg Kisselev, aurreko partidu batean.

Espainiako Kopa Ciudad Realen



hiru partidu irabazita denboraldiko hirugarren titulua irabazteko moduan direla. Hori edonor berrindartzeko nahikoa arrazoi bada. Aurrean Granollers izango du. Sead Hasanefendicen taldeak Vranjes suediarren baja izango du, baina Portlandi

irabazteko ilusioarekin daude. Ligan joko ona egiten ari dira bigarren itzulian, eta talde arriskutsua da, egun ona duenean. Bistan da, arrazoi ezberdengatik, indarrak nahikoa parekatuta daudela, eta horrek aukerak zabaltzen dituela.



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandea, maiatzak 27, 18:00etan
Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - MALAGA C.F.

TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean
Ostiralean 17:30etatik 20:00etara,
larunbatean, 10:30etatik 13:30etara
eta 17:30etatik 20:00etara,
igandean, 10:30etatik 13:30etara eta
16:00etatik aurrera.

Athletic Club - Malaga partidarako sarrerak BBKren autozerbitzuko kutxazainetan eskuratu ahaliko dira.
Zerbitzu hori doako da, eta financia txartela duten erabiltzaile guztiek baliatu ahaliko dute, maiatzaren 25etik aurrera, eguneko 24 orduetan.

LEZAMA KO KIROL INSTALAZIOAK

Igandea, maiatzak 27, 11:30etan
Errege Kopako final laurdenak - Gazteen Ohorezko Maila

ATHLETIC CLUB - C.D. TENERIFE



Coche Oficial del
Athletic Club

